

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Ekilore bat errepidetan

Astearte buruzuri bat da, eta hitzordu batera bidean noa autoan. N-1 errepi-dea zauri bat da gure herriaren aireko irudian eta, ibaiak uzten dion markari sekula irabaziko ez dion arren, ohitu gara orban horren edertasunera. Irra-tian, hamasei bat urterekin talde kuttunaren kantu kuttunenekin osatutako diskoa bueltaka, eta trafi-koa lasai; nahikoa, gustura gidatzeko. Eta, bat-bate-an, bera ikusi dut: ekilore bat, Donostiarantz doa-zen bi errailen, eta Gasteizerantz doazen beste bien erdi-erdian.

Norbaitek testu honetarako atrezzo moduan jarri izan balu bezala dago, lekuz kanpo. Pentsatu dudun lehenengo gauza izan da, autoa bide ertzean uzteko aukera izango banu, argazki kamera atera eta erre-tratu eder bat egingo nukeela. Ekilore bat errepede erdian, gehiegizko abiadurak eta porlanak inguratu-ta, baina sustraiak poliki botaz, eta eguzkiari astiro segika.

Esango nuke denok sen-titu garela, noizbait, lekuz kanpo; edo denok sentia-razi gaituztela inoiz. Bizi-tzak guretzat prestatu zi-tuen lau hormak zeharkatu izan bagenu bezala. Gogora datozkit Maria Pilar, Ekain eta Sa-muel. Eta anonimotasune-an betirako geratuko di-ren hamarnaka eta ehunka eta milaka izen. Egunotan, munduari hor-mak ukitzen saiatu, eta es-ku ahurra erretzen bai-tzaio bati.

Pentsamendu horietan nabilela, erabaki dut ego-kia izan litekeela, zoriak parean jarri didan dekora-tu hau hemen eta orain sentitzen ari naizenarekin konparatzea: ia bi urtez bere buruari, sabelari eta haurrari begira hazi eta bizi izan den honek, aste gutxiren buruan batu beharko du gainerakoen erre-pidera eta abiadurara. Ekilore bat, N-1ean.

Tetris jokora makurtutako agenda bat izatetik, gu-re beharrik primitiboenen agendara pasatzea; hori-

xe izan da amatasunak ekarri didan irakasgairik ga-rrantzitsuena. Bizimodu pausatuagoa ia beti, baina ez, horregatik, errazagoa. Ama hasiberria noiznahi senti baitaiteke ekilore, eta noiznahi lekuz kanpo.

AMA HASIBERRIAREN ZAT EZLEKUAK

Emakumeon gorputza sexualizatuz gozatzen duten gizon berberak begirada batekin gaitzetsi nahi dute-nean, haurrari bularra plazan ematea. Hanka bate-kin zakarrontziari, beso batekin armairuari eta bes-te eskuarekin haur gero eta arinagoari heltzen ari zarela, zeure burua kanpotik irudikatzen duzun unean. Haurrak egin beharreko lo orduak zorrotz errespetatu nahi dituzula-eta, barre txikiek garran-tzia kentzen dizutenean. Kirol pixka bat egiteko tar-tetxoak hartu, eta sekulakoa egin duzula iruditzen zaizunean. Esne orbanek zikindutako kamiseta soi-nean, kalera irteteak inporta ez dizutenean. Prozesu biologiko eta emozional honen bidea, etxeko ani-

Tetris jokora makurtutako agenda bat izatetik, gure beharrik primitiboenen agendara pasatzea; horixe izan da amatasunak ekarri didan irakasgairik garrantzitsuena. Bizimodu pausatuagoa ia beti, baina ez, horregatik, errazagoa

malia bat izatearekin alderatzen dizutenean. Edo-zein bazkalondotan, denek beren bizitza kontatzen dutenean, zureak jasan duen aldaketari ia errepara-tu gabe. Zu babesteko intentzio zintzoaz, haur esko-laren hasierak sortzen dizun mina urardotu nahi dutenean.

Ama hasiberriari leku asko bilakatzen zaizkio ez-leku. Eta hala bedi, urreak ere ez baitzkit ordaindu-ko hilabeteotan, astiro eta eguzkiari begira, botata-ko sustraiak. •